



2014ko azaroak 25

MEXIKO-TOLUCA HIRIARTEKO TREN PROIEKTUAREN ESLEIPENA

Mexikoko Komunikazio eta Garraio Idazkaritzak (SCT) CAFek zuzentzen duen eta Isolux-Corsán, AZVI eta Thales enpresek osatzen duten kontsorzioari esleitu dio Mexiko hiria Toluca-ekin lotuko duen hiriarteko tren-proiektua.

Kontratu hori abenduan sinatzea aurrez ikusi dute eta haren zenbatekoa 690 milioi euro ingurukoa izango da, BEZik gabe. Zenbateko horretatik, eragiketaren % 49 dagokio CAF Taldeari gutxi gorabehera.

CAFen hornikuntzak material mugigarria biltzen du: bakoitzak 5 kotxe izango dituen 30 unitate elektriko izango dira. Gutxi gorabehera 700 bidaiarientzako edukiera eta barnealde gardena izango dute. Kotxeen arteko interkomunikazioko korridorea izango dute, mugigarritasun mugatuko pertsonentzako espazioak barne, eta pertsonen garraio masiborako diseinatuta egongo dira. Horrez gain, kalitate eta segurtasun arloko estandar gorenak beteko dituzte.

Alde batetik, CAF Signalling-ek honako hauek hornituko ditu seinaleztapenaren arloan: ATO sistema, kontrol-zentroa eta ERTMS enbarkatutako ekipamenduak. Bestalde, CAF Taldeko eraikuntza-enpresa, CMFS, arduratuko da instalazio elektromekanikoez, eta CAF Transport Engineering-ekin batera, baita proiektu horren integrazioko eta koordinazioko ingeniarietaz ere.

1992. urtean hasi zen CAF Mexikon proiektuak garatzen eta, orduetik, Mexiko hiriko metro-linea ugaritarako unitateak hornitu ditu. Gainera, mantentze-lanen zerbitzuak ere egin ditu. Horri guztiari, gainera, 2008. urtetik, hiri-inguruko lineako bidaiarien tren bidezko garraioaren hornikuntza eta ustiapena gehitu behar dizkiogu. Emakida-erregimenean hitzartutako kontratu hori 30 urterako da eta Mexiko DF hirian Buenavista-Cuautitlán ibilbidea biltzen du.

Azken kontratu horri esker, enpresak Amerika kontinente osoan tren arloko materialaren hornitzaile garrantzitsuenetakoen artean betetzen zuen rola sendotu du. Izan ere, Mexikon ez ezik, gaur egun proiektuak indarrean ditu Estatu Batuetan, Brasilen, Kolonbian eta Txilen.